



# Hondakinak: ez genituzke ikusi nahi, baina hemen daude



~Doako jarduera irekia  
~18:00etan  
~Donostiako Miramar Jauregian edo online

Hizlaria: Iñaki Susaeta, IHOBeko Hondakin Saileko koordinatzailea.

"Hondakinetatik eratorritako bigarren mailako materialetarako merkatu egonkor eta segurua sortzeko premia larria".

**Mar. 12 2026**

**Kod. W04-26**

**Mod.:**  
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**  
2026

**Jarduera mota**  
Jarduera irekia

**Data**  
Mar. 12 2026

**Kokalekua**  
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**  
Gaztelera

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



# Azalpena

Hondakinek protagonismo handia hartu dute ekonomia modernoaren garapenean. Hondakinen kudeaketa egokiak, ingurumenaren jasangarritasunean laguntzeaz gain, aukera ekonomiko esanguratsuak ere sor ditzake. Paradigma-aldaketa horren arrazoia da ahotan dugun ekonomia zirkularrari buruzko kontzientzia gero eta handiagoa dagoela, hondakinak baliabide bihurtzeko helburuarekin. Baina... noraino iristen da ekonomia zirkularra?

Hori da, ziur aski, eztabaida gehien sortu duen puntua. Horregatik egin dute hainbat egilek ekonomia zirkularraren nolabaiteko kritika; ezinezkoa dela diote, esaten dutenez termodinamikaren legeen aurka doalako (Martínez-Alier, 2016; Mayumi eta Giampietro, 2020).

Baina galderari ematen diogun erantzuna gorabehera, badirudi egia dela, hondakinetatik eratorritako kalitatezko materialen merkatu egonkor eta eraginkorra eraikitzeko gai ez bagara, ezingo dugula ekonomia zirkularraz hitz egin.

Zer behar dugu bigarren mailako materialen merkatu hori errazteko? Nire ustez, oinarrizko lau ekintza unibertsalek eraman behar gaituzte bigarren mailako lehengaien merkatu eraginkor eta ireki horretara: hondakinak jatorrian modu masiboan bereiztea, teknologia berritzaileak txertatzea hondakinen behar bezalako prozesatzean, sortutako bigarren mailako materialen kalitatea zorrotz kontrolatzea eta material horien lehentasunezko erabilera sustatzea.

Gaur egungo egoera hobetzeko aukera dugu. Baina ez gaitezen teknologiaz bakarrik fidatu, kateko agente bakoitzaren konpromisoa baita gure aktiborik onena.

Hondakinetatik eratorritako material asko (plastikoak, metalak, papera eta abar) ekoizpen-prozesuetan sar daitezke berriz. Horrek baliabide naturalekiko mendekotasuna murrizten du, erauzketa-kostuak txikiagotzen ditu eta ingurumena babesten laguntzen du.

Ekonomia zirkularra deitzen diogun horretara igarotzea funtsezkoa da etorkizunean garapen jasangarria eta lehiakorra bermatzeko.

# Programa

**2026-03-12**

18:00 - 19:15

“Residuos: No quisiéramos verlos, pero están aquí”

**Iñaki Susaeta** | IHOBE - Coordinador del Área de Residuos

---

**Eva Caballero kazetariak hizlariarekin elkarrizketa izango du hitzaldia amaitutakoan / La periodista Eva Caballero mantendrá un diálogo con el ponente una vez finalizada la conferencia**

---

# Irakasleak



## Iñaki Susaeta

IHOBEko Hondakin Saileko koordinatzailea

---

Eusko Jaurlaritzako IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko teknikaria da. 38 urtetik gorako esperientzia du administrazio publikoan, ikerketa- eta hezkuntza-erakundeetan eta sektore pribatuan. Zientzietan lizentziaduna da Nafarroako Unibertsitatean, eta Ingurugiro Ingeniaritzako Ikasketa Aurreratuen Gradua du Euskal Herriko Unibertsitatean. Horrez gain, bioteknologiako ikerketa-egonaldia egin zuen Wageningen-eko Nekazaritza Unibertsitatean (Holanda), eta ikertzaile gonbidatua izan zen Stevens Institute of Technology-n (AEB). 2006tik 2021era, Euskal Herriko Unibertsitateko Ingurugiroaren Agrobiologia Masterreko irakaslea izan zen, eta esperientzia handia du I+G+Bko nazioarteko proiektuen koordinazioan. Halaber, Zientzia eta Teknologia Ministerioko adituen batzordeko kide izan da, baita ingurumen-arloetako laguntza-eskaerak ebaluatu eta hautatzeko Europako Batzordekoa ere. 2019ko uztailetik 2021eko uztaileira, Regions4 Sustainable Development sareko idazkari nagusia izan zen. Idazkaritzako lana gidatzeko ardura izan zuen, biodibertsitateari, klima-aldaketari eta garapen jasangarriari buruzko nazioarteko agenda nagusiei dagokienez, eskualdeetako gobernuen ordezkaritza eta eraginaren arloan.

# Matrikula prezioak

| IZEN EMATEA - AURREZ AURRE | 2026-03-12 ARTE |
|----------------------------|-----------------|
| Orokorra                   | 0 EUR           |

| IZEN EMATEA ONLINE ZUZUENEAN | 2026-03-12 ARTE |
|------------------------------|-----------------|
| Orokorra                     | 0 EUR           |

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa